

2. ariketa: lotu hitza dagokion esaldiarekin

Asmari buruzko informazioa izango dugu entzungai jarraian

- Testua bi aldiz entzungo duzu.
- Entzuten hasi aurretik 1 min duzu esaldiak irakurtzeko.
- Lehenengo entzunaldia bukatu ondoren, 1 min duzu erantzuteko.
- Bigarren aldiz entzun ostean, beste 1 min duzu ariketa amaitzeko.

Nahi duzunean hasi erantzuten, baina lehenengo entzunaldian ez erantzutea aholkatzen dizugu.

10.	Bronkioetako muskuluak	A.	Gaitza ez da sendatzen, baina momentuko krisirako konponbidea.
11.	Asma	B.	Gauetan eztula eta arnasa-arazoak edo lo egiteko arazoak izaten dira.
12.	Kutsadura	C.	Arriskutsua ez den substantzia baten aurrean gehiegizko erantzuna.
13.	Larritasuna	D.	Ez du gaixoaren eboluzioan eraginik, jendeak kontrakoa pentsatu arren.
14.	Krisi txikiak	E.	Beharrezko botika hartuta ere, berehalako erantzunik ez dagoenean.
15.	Botika bronkio-zabaltzaileak	F.	Arriskutsua izan daitekeen substantziaren aurrean babes naturala.
16.	Botika inhalatuak	G.	Gaitzarekin lotura zuzena omen du, zenbat eta handiagoa izan, orduan eta garatzeko arrisku gehiago.
17.	Esnea	H.	Kortikoideek ez dute hezurretan efektu txarrik.

■ Idatzi dagokion hizkia ondoko laukietan, eta ez ahaztu erantzun-orrira pasatzea:

Hitzak	10	11	12	13	14	15	16	17
Esaldiak								